# Zuzia

HARRESIA APURTUZ, BIDEA ZABALDUZ

11. zenbakia. 2023ko urtarrila.

## BERRIAK



### ERREPRESIOAREN AURREAN, EUSKAL HERRIAK AMNISTIA

ASKE antolakunde antirrepresiboak prentsaurrekoa burutu zuen Iruñean, urtarrilaren 24an. Prentsaurreko horretan,

Edonon sakatu

## SINDIKATU EREDUAK, IKUSPUNTU IDEOLOGIKOAREN ARABERA



Euskal Herri Langileak bere helburuak lor ditzan ezinbestekoa da sindikalismoa ezagutzea. Izan ere, sindikatuak berez iraultzaileak ez diren arren, langile...

Edonon sakatu

## NAZIO IZAERA ETA HISTORIAREN IRAKURKETA ERROMANTIKOAZ




Pertsona talde bat nazio gisa definitzeko osagai ugari izan behar ditu: egonkortasuna esparru geografiko batean denbora batean zehar, hartu-eman...

Edonon sakatu

## FORMAKUNTZA



### KUBATAR PROZESU IRAULTZAILEAREN GARAPEN

Kuba XIX. eta XX. mendeen arteko prozesu historiko konplexuen eszenatoki...

Edonon sakatu

## HAUSNARKETA



### IPAR EUSKAL HERRIKO EGUNGO ETXEBIZITZA PROBLEMATIKA

Ipar Euskal Herrian Covid-19aren pandemiaren ondorengo testuinguruak are larriagoa bilakatu du etxebizitzaren problematika lurraldean bertan...

Edonon sakatu

## ELKARRIZKETA




**U14** olektiboko kideekin mintzatu gara. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko egoeraren lehen eskuko informazioa jasotzeko eta, bestetik, Ipar Euskal Herriko testuinguruan kolektiboak antzematen dituen problematiken eta erronken inguruko...

Edonon sakatu

jardun_koordinadora

jardun_koordinadora

JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK

Web www.jardunkoordinadora.com

Hasierara bueltatu

# BERRIAK




# ERREPRESIOAREN AURREAN, EUSKAL HERRIAK AMNISTIA

ASKE antolakunde antirrepresiboak prentsaurrekoa burutu zuen Iruñean, urtarrilaren 24an. Prentsaurreko horretan, hurrengo sei hilabeteetan amnistiaren aldarria Euskal Herriko kaleetan zehar zabaltzeko eta, era berean, Euskal Herri Langilearen aurka estuek daramaten estrategia errepresiboa zein honen ondorio diren gertakariak salatzeko martxan jarriko duen kanpaina aurkeztu zuen. Horrez gain, espainiar eta frantziar estatuen eskutik Euskal Herriko militante iraultzaileek historian zehar pairatu dituzten errepresio formak ugariak izan direla azaldu zuen ASKE-k. Borroka egiteko hauta egiteagatik atxiloketak, torturak eta erailketak militante askoren patua izan direla ekarri zuen gogora. Antolakunde antirrepresiboaren arabera, dominazio forma orok biolentzia du tresna nagusitzat bere zapalkuntza aurrera eramateko garaian.

Horren aurrean, Euskal Herriak pairatzen duen zapalkuntza nazionalaren eta sozialaren aurrean borrokatzea ez dela aukera bat azaldu zuten, beharra baizik. Errepresioa kapitalak berezkoa duela azaltzearekin batera, hau errealitate konkretura moldatzen dela eta honek bilakaera bat duela ekarri zuten gogora. Era horretan, errepresioa desagertu beharrean egungo baldintzetara moldatu dela azpimarratu zuten. Egungo militantzia politikoaren aurka jotzeko orduan, estatuek hau kriminalizatu, ekonomikoki ito, eta, mehatxu eta jarraipen bitartez kikiltzen edota etengabeko neurri judizialen bitartez suntsitzen ari direla mahaigaineratu zuten. Gauzak horrela, egungo krisi egoeran Euskal Herri Langilearen bizi baldintzek okerrera egiten duten heinean, burgesia bere antolakuntza eta mobilizazioa eteteko neurriak ezartzen ari dela adierazi zuten, hau indargabetzeko baldintzak ezartze aldera. Gainera, Euskal Herriak nazionalki eta sozialki zapalduta jarraitzen duen bitartean, errepresioa konstante bat izango dela aipatu zuten.

Amnistia preso politikoetara mugatutako afera izateaz haratago, hauen egoera iraultzeko eta zapalkuntza eta errepresioarekin behingoz amaitzeko baldintza gisa ulertzen ditu ASKE-k, Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntza gainditzeko biderako baldintza, alegia. Azken finean, amnistia Euskal Herri Langileak erabateko askatasuna izango duen etorkizunaren mugarria da. Hori dela eta, ASKE-k hori lortu arte auzoz auzo, herriz herri... Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalketa eta hori gainditzeko beharrezkoa den amnistia erdiesteko lanketak aurrera eramango dituela iragarri zuen.

Kanpainari amaiera ezartzeko, ASKE-k Amnistia eguna burutuko du ekainaren 3an Donostian, errepresioaren inguruan hausnartzeko eta ASKE-k dituen erronkak mahaigaineratzeko helburua izango duena. Bestalde, kanpainari hasiera emaneteko, urtarrilaren 27an ASKE-k “errepresioa gaur egun” izenburupean bi hitzaldi burutu zituen, Txantreako Akelarre kultur elkartean. Lehenengo hitzaldia amnistiaren eta errepresioaren inguruko izan zen, iraganetik gaur egunera arte hauek izan duten bilakaeraz aritzeko aukera eman zutelarik. Bigarrenean, errepresioa hurbilagotik eta era praktikoan ulertzeko aukera eman zuen ASKE-k, abokatu baten eskutik Euskal Herrian emandako kasu ezberdinak era praktikoan lantzeko beta eskaini zuelarik. Horrez gain, urtarrilaren 28an, 2019ko urtarrilaren 26an 35 urte zituelarik zendutako Oier Gomez eusko gudaria gogora ekartzeko egitaraua antolatu zuen Gasteizen. Oier gogora ekartzeaz haratago, berak militante iraultzaile gisa aurrera eramandako borrokaren zuzentasuna eta beharra iluntasunetik ateratzeko eta era publikoan aldarrikatzeko kalejira eta omenaldia burutu zituen, hiriko Alde Zaharrean. Hau bukatuta, egitarauari herri bazkariarekin eman zioten amaiera.




# JARDUN-EN LANKETA ANTIERREPRESIBOA GORPUZTUZ DOA

Genevarekin batera Donostia Europako argiaren hiria izendatu dute aurten. Horren aurrean, Donostiako JARKI antolakunde iraultzaileko kideek hiriko langileria ekimen horren inguruan kontzientziatzeko eta bertako langileek bizi dituzten problematikak azalarazteko kanpaina burutu dute. Izan ere, Donostia inoiz baino argiztatuago egon da, argindarraren prezioa inoiz baino garestiago dagoenean. Horrela, inflazioaren eskutik produktuen prezioek gora eginda eta langileon soldata errealak behera eginda, langileok zergen bitartez burgesiaren kapritxo xahutzaileen zama ere hartu behar izan dute haien gain. Alta, Donostia argiztatuta egon da, Donostiako langileok argia ezin ordainduta hotzak jota dauden bitartean.

Langileok egunerokotasunean pairatzen ditugun miseria, bizi baldintzak zein egoera ezkutatzeko, horrelako ekimenekin alaitasunaren eta zoriontasunaren eldarnioa sortzea besterik ez baita Donostiako udalaren eta bertako burgesiaren helburua. Hala ere, esplotazioa eta pobretzea Donostiako langileen eguneroko ogia direnez gero, hau ezkutatzen saiatzea ezinezkoa izango zaiela salatu zuen JARKI antolakunde iraultzaileak kanpainan zehar, hiriko langileak pairatzen dituzten problematikak lehen lerrora ekarrita. Era horretan, langileon esplotazioa eta egungo testuingurura kapitalismoaren barne kontraesanen ondorio gisa kokatu zituen, honen aurrean alderdiek babestutako instituzionalismoaren antzutasuna deitoratzearekin batera.

Edozein alderdik gobernatuta ere, sistema kapitalistak bere horretan dirauen bitartean langileon egoerak berdin jarraituko du. Era horretan, kontzientzia hartu, antolatu eta sistema kapitalista akatuta egikarituko da kapitalismoaren estatu aparatuen kontrolari amaiera eman eta langileon boterearen gainean eraikia izan behar den euskal estatu independiente eta sozialista. Beraz, JARKI antolakunde iraultzaileak bide horren mesedetan jardungo duen alternatiba iraultzailearen gorputzera dei egiten dio Donostiako langile orori ez ezik Euskal Herriko langile orori.

Menura bueltatu

# SINDIKATU EREDUAK, IKUSPUNTU IDEOLOGIKOAREN ARABERA



Euskal Herri Langileak bere helburuak lor ditzan ezinbestekoa da sindikalismoa ezagutzea. Izan ere, sindikatuak berez iraultzaileak ez diren arren, langile antolakunde handienak diren neurrian, zalantzarik gabeko zeresana dute klase borrokan eta langile mugimenduan, eta, beraz, prozesu iraultzailearen ibilbidea baldintzatzen dute. Horregatik, praktika politiko iraultzailea garatzeko orduan, funtsezkoa da sindikatuen elementu positiboak eta negatiboak identifikatzea eta beraien praktikari buruzko jarrera finkatzea. Gure asmoa, oraingoan, sindikatuen sailkapen bat eskaintzea da, planteamendu ideologikoen eta helburu estrategikoen araberakoa dena.

## EKINTZA SINDIKALAREN EZAUGARRITZE OROKORRA

Sindikatuak, langileak antolatuz, haien interesak ordezkatzea eta defendatzea dute helburu. Horretarako, langileak esplotatuak diren eremuan jarduten dute, lantokian, alegia, haien lan-baldintzak hobetze aldera. Lanak ekoizpen modu kapitalistan esplotazioa eta zapalkuntza inplikatzen duen neurrian, sindikatuen jarduera eremu erabat gatazkatsuan jazotzen da. Izan ere, patronalaren helburua beti izango da lanak ematen dizkion irabaziak handitzea, langileak ahalik eta gehien esplotatuz. Aitzitik, langileek ahalik eta gutxien lan egin nahiko dute, eta ahalik eta lan-baldintza onenak izan (soldata, lanaldia, oporrak, erosotasuna...).
Hortaz, gatazka da sindikatuen berezko esparrua. Baina gatazka egoerari ez zaio beti konfrontazioarekin erantzuten. Hartara, ekintza sindikalak hiru joera nagusi izan ditzake langileen interesak defendatzeko orduan: kontzertazioa (edo adostasuna), negoziazioa edota konfrontazioa.

- **Kontzertazioa** adostasunera heltzeko ahaleginetan datza, eta normalean gobernu eta patronalaren arteko harreman eta akordioen multzoa izaten da. Horretan sinesten dutenek “interes” komuna ikusten dute langileen eta patronalaren artean, eta horretara heltzen ahalegintzen dira, adostasuna helburu. “Gatazkarik gabe, denontzat hobe”. Hortaz, kontzertaziora jotzean, laneko gatazka baretzea izaten da sindikatuen joera.
- **Negoziazioan** interes ezberdinen arteko gatazka aitortzen da, baina lan baldintzak hobetze aldera, zentzu utilitarista batetik, mesedegarriagoa ikusten da akordioetara heltzea. Hortaz, negoziazioa akordio edo hitzarmen batean bukatzen bada, gatazka gelditu egiten da aldi baterako.
- **Konfrontazioan**, ez dago akordiorik eragileen arteko interesen artean, eta, grebaren bitartez, esplotazio harremana bera jartzen da kolokan, patronalari kalte materialak eragin nahian. Hemen, laneko gatazka maila hauspotzen da. Hala ere, ez dugu pentsatu behar konfrontazioaren helburua sistema kapitalistarekin bukatzea izaten denik. Normalean, presionatzeko erabiltzen dute sindikatuek, negoziazio onuragarriago bat lortzeko asmoarekin.

Gehienetan, hiru aukerak nahastuta agertzen dira ekintza sindikalean. Hala ere, kontzertazioa lehenesten duen sindikatu batek gutxitan joko du konfrontaziora, eta, alderantziz, gatazka lehenesten duenak gutxitan joko du kontzertaziora. Bestalde, negoziazioa kontzertazioaren eta gatazkaren artean dago, eta egun sindikatu guztietan dagoen elementua izaten da, negoziazioaren jatorrian gatazkarako edo kontzertaziorako joera egon daitekeelarik. Hau da, patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioa etor daiteke borroka baten ondoren patronalak baldintza batzuk adostea onartu duelako; edo sindikatuak konfrontaziorako prestutasunik ez duelako, eta, gatazka saihestearren, edozer onartzeko prest dagoelako.




Konfrontazioa lehenesten duten sindikatuak dira, hasiera batean, interesa pizten dutenak, ekimen iraultzaileari begira. Baina kontuz, konfrontazioa erabiltzeak ez du sindikatu bat automatikoki iraultzaile bihurtzen. Izan ere, kontuan hartu behar dira zeintzuk diren borrokatzen ari diren helburuak. Kasu batzuetan, soilik langile pribilegiatuen baldintzak mantentzera bideratuak egon daitezke grebak, klase batasuna suntsituz. Maila politikoan, prozesu iraultzaileak edo sozialistak oztopatzeko baliatu izan dituzte zenbaitetan. Besteetan, testuinguruko indar korrelazioarekin bat ez datorren konfrontazioa susta dezake sindikatu batek, langileen kontrako errepresioa hauspotuz, inongo helbururik erdietsi gabe.

Horregatik, konfrontazioaren hautuak ez du sindikatu bat automatikoki prozesu iraultzailerako mesedegarri bihurtzen. Hori dela eta, konfrontazioa elementu positiboa izan badaiteke ere, sindikatuaren ideologia hartu behar da kontuan.

Sindikatuen inguruko orientabide ideologiko nagusiak
Modu asko daude sindikatuak sailkatzeko. Oraingoan, sindikatuak beren izaera ideologikoaren arabera aztertuko ditugu. Diskurtsiboki, sindikatu guztiak ahalegintzen dira langileen lan- edota bizi-baldintzak hobetzen. Hala ere, parametro ideologiko ezberdinen barruan egiten dute, helburu estrategiko kontrajarriekin.

> “sindikatu gehienek euren burua klase antolakundetzat izaten dute maila diskurtsiboan, baina praktikan, bitartekari sozial gisa jarduten kontzertazioa lehenetsiz eta konfrontazioa alboratuz.”

Oro har, sindikatuak edo sindikalismoa ulertzeko hiru eredu ideal daude: sindikatua agente ekonomiko gisa (edo negozio sindikalismoa), sindikatua bitartekari sozial gisa (edo bitartekaritza sindikalismoa) eta sindikatua klase antolakunde gisa (edo klase sindikalismoa).
Hiru eredu horiek ez dira inoiz modu soilean agertzen, sindikatu bakar baten praktikan hiruak ager daitezke eta. Baina orokorrean, hiru ereduetatik bat nagusituko da.

Halaber, sindikatua ulertzeko modu bakoitzak ekintza modu bat lehenetsiko du. Hala nola, bere burua merkatuan parte hartzen duen eragile ekonomiko gisa ulertzen duen batek negoziaziora joko du. Gizarte integraziorako bitartekari gisa jarduten duen sindikatu batek, kontzertazioa eta adostasuna lortzea lehenetsiko du, normalean. Azkenik, klase izaera duen sindikatu batek, gehienetan, konfrontazioa lehenetsiko du helburuak lortzeko. Dena dela, ikusiko dugunez, sindikatu gehienek euren burua klase antolakundetzat izaten dute maila diskurtsiboan, baina praktikan, bitartekari sozial gisa jarduten kontzertazioa lehenetsiz eta konfrontazioa alboratuz.

## NEGOZIO SINDIKALISMOA

Tradizio merkantilistak agente ekonomiko gisa ulertu izan du sindikatua, bestelako agenteekin merkataritza-lehian dagoena. Sindikalismo eredu honek lan indarraren merkantzia-izaera onartzen du, eta haren funtsezko eginkizuna bere kideen interesak ordezkatzera mugatzen da, negoziazio kolektiboa erabiliz.



Halaber, lan harremanak zentzu merkantilistan ulertzen dituen neurrian, ez ditu langile klasearen edo gizartearen interesak kontuan hartzen negoziatzeko orduan, baizik eta sindikatuko afiliatuak diren langile sektorearenak soilik. Zentzu horretan, edozein konpromiso politiko saihesten du. Hortaz, eredu horrek praktika insolidarioak eta klase zatiketa sustatzen ditu.

Negozio sindikalismoa Estatu Batuetan garatu da, batez ere. Gurera ekarriz, “lanbide sindikatu” legez deiturikoak koka ditzakegu hemen; hala nola, medikuen sindikatua, erizainena, enpresetako sindikatu propioak... Eztabaidagarria da STEILAS hezkuntza-sindikatua tipologia horren barruan koka daitekeen. Izan ere, irakasleak biltzen dituen sindikatua izan arren, badu inplikazioa eremu politikoan.

Eusko Langileen Alkartasuna (ELA) sindikatuari egotzi ahal zaio jarrera da hori, batetik, negoziazio kolektiboaren autonomia sutsua defendatu izan duelako (hau da, antolakunde politikoekiko autonomia osoa). Bestetik, bere ekintza enpresa mailan sustatzen du gehienbat, langileen arteko baldintza ezberdintasunak handituz. Azkenik, borroka eta greba asko bere kabuz eramaten ditu aurrera, gainerako antolakunde sindikal zein afiliatuak ez diren langileekin ekintza-batasuna alboratuz. Dena dela, kontuan hartu behar da ELA dela grebak aurrera eramateko gaitasun handiena duena, erresistentzia-kutxa eraginkorra eskura duen neurrian. Ondorioz, konfrontazioa gehien sustatzen duen sindikatua da, nahiz eta askotan bere kabuz egin. Bestalde, negoziazio kolektiboaren autonomia aldarrikatu arren, bai esku hartzen du eremu politikoan.

## GIZARTE BITARTEKARITZARAKO SINDIKALISMOA

Historikoki, sindikalismo eredu hau mugimendu kristauen barruan sortu zen, gizarteaz duten ikuspegi organizistak eta interklasistak bultzatuta. Eredu honentzat, sindikatuen helburua gizarte harmoniatsua lortzea litzateke, kapitalismoaren alde basatiena humanizatuz. Zentzu horretan, klaseen arteko harreman baketsua lortu nahi dute (hau da, bake soziala), konfrontazioa saihestuz. Horretarako, sindikatuaren eginkizuna da langileen eta patronalaren arteko bitartekaritza lanak egitea.

> "Leninek, sindikatuak borroka sindikaletik borroka iraultzailera berez pasatzen ez direla ikusita, beharrezkotzat jotzen du abangoardia batek norabide iraultzailean ekitea."

Euskal Herrian, ELAk eredu katolikoa hartu zuen bere hastapenetan, EAJren eskutik sortua izan zen neurrian. Hala ere, 1976ko kongresuan, sozialista moduan definitu zuen bere burua. Gerora, 1990eko hamarkadan, EAJrekiko zituen harremanak gaiztotu egin ziren, eta 2000ko hamarkadaz geroztik, Lan Harremanen Kontseilutik irten eta uko egin izan dio Eusko Jaurlaritzak antolatutako Elkarrizketa Sozialerako Mahaietan parte hartzeari.
Espainiako Estatuan, Unión Sindical Obrera (USO) da mugimendu demokristautik sortutako sindikatua, eta Frantziako Estatuan Confédération Française Démocratique du Travail (CFDT).

Erro katolikodun sindikatuez gain, Bigarren Mundu Gerraz geroztik, sozialdemokraziak kokatutako hainbat sindikatu instituzionalizatu eta Ongizate Estatuaren parte izatera pasatu dira, elkarrizketa soziala klase borrokaren gainetik jarriz. Izan ere, pisua irabazi ahala, zenbait sindikatu estatuan integratu eta haren parte moduan funtzionatzera pasatu dira, eta konfrontazioaren erabilpena lausotzen joan dira. Hau da, sindikatuak, sozialdemokrazia bezalaxe, estatu burgesaren kolaboratzaile izatera pasatu dira, eta prozesu iraultzailearen barruan egin zezaketen ekarpena ezerezean geratu da. Ildo horretatik, jatorrian klase izaera zuten sindikatuek ere bereganatu dute sindikalismoa ulertzeko ikuspuntu ideologiko hori; besteak beste, Comisiones Obreras (CCOO), Unión General de Trabajadores (UGT) eta Frantziako Confédération Générale du Travail (CGT). Espainiako sindikatuen kasuan, jarrera hori azken lan erreforman ikusi ahal izan dugu. Izan ere, lan erreforma inongo mobilizazio barik onartu zuten, sindikatuen, patronalaren eta gobernuaren arteko elkarrizketa sozialaren balioa azpimarratuz langileentzako onurak lortzeko orduan.



Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuak bere jatorrian eredu horri uko egin izan dion arren, aurreko gatazka zikloa bukatu zenetik, eredu hartara hurbiltzeko joera sumatu ahal zaio. Esaterako, duela gutxi agertu du Elkarrizketa Sozialerako Mahaian parte hartzeko asmoa. Ikusteke dago, beraz, horrek hartuko duen duen ibilbidea.

# KLASE SINDIKALISMOA

Klase sindikalismoa industrializazioarekin sortutako langile mugimendu sozialista eta iraultzaileen testuinguruan gorpuztu zen. Honen arabera, lan gatazkak kapitalismoaren parte den klase gatazkaren adierazpenak dira, eta horiek langile klase moduan borrokatu behar dira. Ondorioz, gatazken aurrean, klase batasuna eta patronalarekiko konfrontazioa sustatuko dute. Gatazkak, sarritan, konfrontazioa hori negoziazioan amaituko du, baina ikuspegi honen azken helburua kapitalismoarekin amaitzea da.

Ikuspuntu iraultzailetik, klase sindikalismoa da ekarpena egin dezakeen eredu bakarra. Kontua hau da: Zein ekarpen egiten dio borroka sindikalak iraultzaren aldeko borroka politikoari? Zer harreman edo jarrera izan behar du antolakunde iraultzaileak borroka sindikalarekiko? Zer-nolako lotura egon behar du bien artean? Zein izan behar du? Horixe izan da, hain zuzen, klase sindikalismoaren auzi nagusia: langileen berehalako interesen aldeko borroka sindikala eta kapitalismoaren kontrako borroka politikoa lotzea.

Karl Marxen eta Friedrich Engelsen arabera, sindikatuek kapitalismoaren mugen barruan jarduten duten neurrian, haien lorpenak beti izango dira mugatuak; izan ere, sindikatuek kapitalismoaren ondorioen aurka borrokatzen dute, baina ez ondorioen arrazoiaren aurka, kapitalismoa bera. Baina sindikatuen ekarpenaren balorazioa ez da haien lorpen ekonomikoetara mugatu behar. Engelsen arabera, langile klaseak burgesekiko duen gorrotoa elikatzea ahalbidetzen dute sindikatuek, eta, "gerrarako eskola" gisa, klase borrokan formatzea ahalbidetzen dute. Bestalde, Marxentzat, kapitalismoak langileei ezarritako lehiaren aurrean, klase batasunean oinarritutako printzipioak jorratzeko ahalmena eskaintzen dute sindikatuek. Hau da, lorpen ekonomikoez haratago, borroka sindikalak zentzu politiko eta moralean ere positiboki eragiten du.



Bestalde, Marxek eta Engelsek uste zuten kapitalismoa garatu eta haren kontraesanak sakondu ahala, langileen lan- eta bizi-baldintzak okertu egingo zirela. Hori dela eta, soldaten aldeko borroka gogortuko zelakoan zeuden, eta langileak borrokara batzen joango zirela. Ondorioz, saihestezina izango zen interes ekonomikoen defentsatik iraultzarako borroka politikora pasatzea. Bistan da ez dela horrelakorik gertatu, kontrakoa baizik: langile klasearen bizi maila hobetu eta borroka sindikala apaldu egin da ordutik Europako mendebaldean. Ikusteke dago etorkizuneko bilakaera, baina gure bizi baldintzek txarrera egingo dutenaren zantzuak egon badaude.

Oro har, XIX. mende amaierako mugimendu sozialistan honako ideiak garatu zituzten, Marxen eta Engelsen ildoari jarraiki: lehenik eta behin, sindikatuek langileentzako onura batzuk lor ditzakete (mugatuak betiere); bigarrenik, sindikatuen barruan antolatzeak eta enpresarien aurka borrokatzeak klase kontzientzia garatzen lagun lezake; hirugarrenik, ahalik eta langile sektore zabalenera heltzeko, ez lirateke alderdi zehatz bati oso lotuta egon beharko.

Dena dela, Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren barruan, bestelako ikuspegi bat garatu zuten, Ferdinand Lassalleren ideietan oinarrituta. Honen ikuspegitik, soldaten aldeko borroka antzua zen, eta sindikatuen ekarpen bakarra kideak alderdira erakartzea zen. Gerora, XX. mendean, sozialdemokraziak erreformismora jo ahala, sindikatuek autonomia handiagoa bereganatu zuten. Sozialdemokraziaren barruan sortutako sindikatua, estatuan botere kuotak lortu ahala, bitartekaritza sozialerako sindikalismo eredua bereganatu izan dute gehienek, kontzertazioan edo adostasunen bilaketan oinarritutako ekintza sindikala burutuz, konfrontazioa lehenetsi ordez.

XX. mende hasieran, sozialdemokraziaren noraeza erreformismoaren aurrean, "sindikalismo iraultzailea" edo anarkosindikalismoak garatu zen, Frantziako, Italiako eta Espainiako Estatuetan, batez ere. Alderdiekiko mesfidantzak bultzatuta, industria eremuko borroka espontaneo, lokal eta autonomoetan kokatzen zuen ahalmen iraultzailea, alderdi sozialdemokraten parlamentarismotik urrun. Horrekin batera, iraultza Greba Orokorraren bidez burutu nahi zuten. Espainiako Estatuan anarkosindikalismoak indar handia izan du Confederación Nacional del Trabajo (CNT) sindikatuak izandako eraginagatik. Bestalde, langile- eta herri-borrokekiko ikuspuntu hori egungo mugimendu autonomoetan antzeman dezakegu, zeinen ustez, borroka lokaletatik abiatuko da gizarte sistema osoa aldatuko duen prozesu iraultzailea.

Antzeko ildotik, baina tradizio anarkistatik urrun, Rosa Luxemburgek masa grebaren teoria garatu zuen 1905an. Hark beharrezko ikusten zuen antolakunde iraultzaile baten existentzia, baina, Leninek ez bezala, iritzi baikorragoa zuen borroka ekonomiko lokalen ahalmen iraultzailearen inguruan, beroriek izaera orokorra eta antikapitalista azkar bereganatu zezaketelakoan.

> "Langileak antolakuntzarako eta konfrontaziorako trebatzea da sindikalismoak egin dezakeen ekarpenik oinarrizkoena"

Leninek, sindikatuak borroka sindikaletik borroka iraultzailera berez pasatzen ez direla ikusita, beharrezkotzat jotzen du abangoardia batek norabide iraultzailean ekitea. Horrelakorik izan ezean, sindikatuek ez lukete sekula kapitalismoaren mugak gainditzeko ahaleginik egingo, ekonomizismora edota erreformismora joz. Ideia horri jarraiki, Internazional Komunistak bere kide ziren alderdi komunistei agindu zien sindikatuetan aktiboki parte hartzeko beharra. Hau da, militante komunistek aktiboki hartu behar zuten parte sindikatuetan, haien klase eta konfrontazio izaera bultzatzeko.

Laburbilduz, ekonomizismoranzko joera izan da sindikatuen arazo nagusia, hau da, langileak ekintza sindikalaren bitartez lortutako berehalako onurekin konformatzea eta kapitalismoaren kontrako borrokari uko egitea. Nola planteatzen zuten horri aurre egitea? Iritzi batzuen arabera, Lenin tarteko, militante konprometitu eta diziplinatuek bermatuko dute langile borroka helburu iraultzaileetara bideratuko dela.

Beste argumentuen batzuen arabera, Luxemburg eta marxista autonomoak tarteko, krisiak direla eta, kapitalismoak ezin ditu langileen bizi-baldintzak mugagabe hobetu. Hori dela eta, borroka sindikala, estutuz gero, espontaneoki bilakatuko litzateke sistemaren aurkakoa, edo militante iraultzaileek behintzat errazago izango lukete borroka politikoa aurrera eramatea. Ildo horretatik, borroka ekonomikoa iraultzaile bihurtzeko prozesua erraztea litzateke militante iraultzaileen eginkizuna.

Euskal Herrian eta menperatzen gaituzten Estatuetan, historikoki, LAB, ESK, CCOO, UGT, CNT eta Frantziako zein Espainiako CGT ditugu klase sindikalismoan kokatu izan diren sindikatuak. Oro har, denek baieztatzen dute euren klase izaera; baina, praktikan, gizarte bitartekaritzarako funtzioa betetzen dute gehienek, gradu handiago edo txikiagoan. Kontrara, ELA sindikatu kristau moduan sortu arren, bere ibilbidean zehar, klase izaera aldarrikatu eta konfrontaziorako joera hartu du, goian aipatutako ñabardurak ñabardura.



Azkenik, egun, klase borroka konplexuago bihurtu den honetan, lan esparruko borrokak zentraltasuna galdu, eta langileen berehalako interesen aldeko borrokak bestelako forma batzuk hartu ditu, herri mugimenduetan ikus daitekeena. Hori dela eta, oso gai anitzetan jarduten duten borroka sektorialak ditugu; hala nola, emakumeak, etorkinak, etxebizitza, errepresioa, euskara, ingurumena... Borroka horiek langile klasearen bizi baldintzak hobetzera bideratutako borroka sektorialak diren neurrian, klase sindikalismoaren zenbait osagai euren gain hartzen dituzte. Hortaz, borroka sindikal eta politikoaren arteko harremanaren inguruko ikuspuntuak eta arazoak herri mugimendu horietan ere aplikatu daitezke.

## ONDORIOAK

Sindikalismoa ulertzeko zenbait modu daude, eta borroka sindikala klase borrokaren atal garrantzitsua osatzen duen arren, edozein ereduk ez dio klase borrokari eta balizko prozesu iraultzaileari ekarpena egiten, eredu batzuk zeharo kaltegarriak izan daitezkeelarik langile klasearentzat eta prozesu iraultzailerako. Gutxieneko baldintza da klase gatazkaren ikuspuntua bere gain hartzea eta horrekin era kontsekuentean jokatzea, hau da, konfrontazioa lehenetsiz. Langileak antolakuntzarako eta konfrontaziorako trebatzea da sindikalismoak egin dezakeen ekarpenik oinarrizkoena baina, hala ere, mugatua. Halaber, borroka sindikalak baditu bere arriskuak, negozio eta bitartekaritza sindikalismoen kasuetan ikusi bezala.

Europa mendebaldean, bitartekaritzarako eta kontzertaziorako joera nabarmena izan da klase izaerarekin sortutako sindikatuen artean. Euskal Herrian, prozesu hori ez da hain modu agerikoan gertatu duela gutxira arte, lan harremanen instituzionalizazio maila baxuagatik (lan arloko gai gehienak Parisen edo Madrilen erabakitzen dira) eta aurreko hamarkadetan izandako konfrontazio zikloagatik. Hala ere, gauzak aldatzen ari dira, eta ikusteke dago sindikalismo abertzaleak hartzen duten norabidea. Ikuspuntu iraultzaile batetik, ezinbestekoa prozesu sindikaletan arreta jartzea.

Menura bueltatu

# NAZIO IZAERA ETA HISTORIAREN IRAKURKETA ERROMANTIKOAZ




Pertsona talde bat nazio gisa definitzeko osagai ugari izan behar ditu: egonkortasuna esparru geografiko batean denbora batean zehar, hartu-eman ekonomiko propioa, behintzat hizkuntza bat partekatzea, ezaugarri kultural amankomunak eta bere nazio izaeraren gaineko kontzientzia izatea; hau da, jendartearen baitan zati adierazgarri batean hedatuta egotea nazio identitatea. Nazio identitate baten faltan, "herria" osatuko luke pertsona talde horrek. "Nazioa" kontzeptuaren kasuan bezala, gizarte interklasista suposatzen du "herria"-k, pertsona talde horretako zapaltzaileak eta zapalduak barnebilduz.

Hortaz, nazio bakoitzaren sorrerak tempo propioak ditu, bere ezaugarrien eratzearen arabera eta bere kontzientziaren hedatzearen arabera. Esaterako, Frantziar nazioaren eraikuntza prozesua eta euskal nazioaren sorrera prozesua ezberdinak izan dira. Nahiz eta euskal izaeraren gaineko kontzientziaren adierazpen ugari dauden historian zehar, nazio bezala definitzea eta beraren aldarrikapena XIX. mendearen amaieran gizarteratzen hasten da. Frantziar nazioaren kasuan, prozesu hau aurretik garatu zen, eta ezaugarri oso ezberdin batek bultzatuta: estatu egitura batek bultzatu zuen frantziar nazio identitatearen hedatzea eta horrela dirau.

Nazioa, hortaz, ez da betidanik existitzen den kontzeptua. Duela ehundaka urte, 1500. urtean, ez zen existitzen naziorik; ez zen existitzen España, ez zen existitzen Euskal Herria nazio gisa, ez zen existitzen frantziar nazioa. Nazio izaeraren ezaugarriei so eginik, Europako testuinguruan ez zegoen bere talde izaeraren gaineko kontzientzia nazionalik zuenpertsona talderik.

## HISTORIAREN IRAKURKETA ERROMANTIKOTIK AZTERKETA IRAULTZAILERA

Nahiz eta gizarteen eta nazioen eboluzioaren testuinguru historikoak ezagutu, gizarteetako sektore zapaltzaileek historiaren beste irakurketa bat zabaltzen dute, betiere haien posizio pribilegiatua mantentzeko helburuarekin. Egungo espainiar zapaltzaileek, esaterako, 1495. urtean España jada existitzen zela diote, iragana goraipatuz egungo egoeran posizio nazionalistak indartzeko argudio gisa, historian zehar espainiar nazioaren existentzia eta ekimena jarraia izan dela agertzeko helburuarekin. Baina hain justu nazioaren historiaren irakurketa faltsua eta interesatua da hori.

> “Baina egungo nazioen iragana parametro nazionaletan goraipatzen duten baieztapenak guztiz okerrak dira. Garai haietan ez zegoen subjektu nazionalik, ez zegoen nazio kontzientziarik. ”

Datu batzuk ezkutatzen dituzte, beste batzuk moldatu eta beste batzuk asmatu. Hau da, nazioaren garapen historikoa, errealitate material eta politikoari erantzuten ez dien irakurketa erromantikoan oinarritzen dute. Historiaren errebisioa nazioaren goraipamenarekin bat egiteak zentzu oso argia du klase gatazkaren ikuspegitik: nazioen baitako klase gatazka difuminatzea da haien helburua interklasismoa sustatzeko, burgesen eta langileon arteko gatazka desagerraraziz eta nazioen arteko norgehiagokak sustatuz (kanpo edo barne arerioak sortuz, adibidez), eta, ondorioz langile klasearen baitan arrakalak sortuz.

Baina egungo nazioen iragana parametro nazionaletan goraipatzen duten baieztapenak guztiz okerrak dira. Garai haietan ez zegoen subjektu nazionalik, ez zegoen nazio kontzientziarik. Hau da, ez zegoen herrien izaeraren gaineko hausnarketa kolektiborik naziotasuna sortzen. Garai hartako zapalduek ez zuten borrokatzen naziotasunaren alde. Alderantziz, bizirauteko beharragatik borrokatzen zuten, norberaren lurrak esplotatzen eta "defendatzen" zituen jauntxoaren alde borrokatuz.

Iragana irakurketa nazional faltsuen bitartez aztertuta, zapaltzaileen helburua egungo klase gatazkan abantaila hartzea da. Iraganeko kontakizun epikoak erabiliz, haien nazioko zapalduak beste nazioetako zapaldu batzuen aurka jartzen saiatzen dira, eta langileria burgesiaren proiektua estatal-nazionalari babesa ematea lortzen, aldi berean. Nazioko kide guztien ezaugarri komunen gorazarrea burutuz, klase gatazkaren ukapena burutzen dute, langileen klase interesak lausotzeko eta langileen arteko elkartasuna deuseztatzeko helburuarekin.



Egoera honen adibide esanguratsua I. Mundu Gerra da. Estatu kapitalisten arteko norgehiagoka inperialistaren baitan, langile klasea bere nazioko burgesiaren interesen alde lerratzera bideratu zuten estatu askotan, gudu-zelaian hildakoen gehiengoa langileak izan zirelarik, bere zapaltzaileen interesen alde bere klase kideen aurka borrokatuz. Hortaz, nazioen izenean aldarrikatutako "nazio osoaren batasuna" posizio iraultzaileetatik konfrontatu beharra dago, nazio bateko zapaltzaile eta zapalduek ez baitute interes eta helburu amankomunik, guztiz kontrajarriak dira, hain zuzen ere.

Gainera, "Batasun nazionala" bezalako ideiak hedatzen badoaz (hezkuntza sistemaren bitartez, hedabideak, kirola...) historiaren irakurketa erromantikoaren ondorio zuzenak txobinismoa eta arrazismoa dira, langile klaseko elementuek bere egin dezaketena, eta ondorioz askapen borroka iraultzailea oztopatu.

Hortaz, historiaren irakurketa erromantikotik aurkakotasunean kokatuz, nazio izaeraren aldarria orainean burutu beharra dago. Hau da, izaera nazionalaren argudiaketa ez dugu iraganean oinarritu behar. Berdin du nazio batek historia luzea izan, iragan intelektual bat izan edo iragan epiko bat izan. Herri batek orainean, gaur egun, nazio bat bilakatzeko beharrezkoa den bere izaeraren gaineko identitatea garatzen badu, nazioa da.

Iraultzaile bezala, helburua historiaren irakurketa zintzoa egitea da, gezurrik esan gabe eta omisiorik egin gabe. Irakurketa hori egitean, zapalduon historiaren garrantziaz jabetuko gara, eskoletan kontatu ohi ez dena: zapalkuntzak, esplotazioa, bortxaketak, hilketak, deportazio masiboak, genozidioak... Gizarteen garapenean eta nazioen sorreran, garapenean zein zapalketan klase gatazkak burutzen duen paperaz jabetuko gara. Eta noski, nazio zapalduen baitan zapaltzaileak daudela ere ikusiko dugu, bertako zapalduen nazio eta klase askapen prozesua haien nazioko zapaltzaileekiko konfrontazioan egon behar den prozesua izanik.

Menura bueltatu

# FORMAKUNTZA



# KUBATAR PROZESU IRAULTZAILEAREN GARAPEN HISTORIKOA

uba XIX. eta XX. mendeen arteko prozesu historiko konplexuen eszenatoki izan da, eta hamarkadetan zehar interes handia sorrarazi du maila internazionalean. Honen konplexutasunari heltzeko, beharrezkoa dugu prozesu iraultzailearen garapen historikoaren funtsetan sakontzea eta gerora horiek kubatar prozesu sozialistan izandako eraginei erreparatzea.

XIX. mende hasierarako, Independentzia Prozesuen loraldia eman zen Latinoamerikako hainbat naziotan. Amerikako Estatu Batuetako Independentzia Prozesuak zein Frantziar Iraultzak eragindako Estatu liberalen sorrerak eragin partikularra izan zuen Latinoamerikako kolonietan. Mendeetan espainiar zein portugaldar kolonialismoaren menpe egotetik, koloniek tokiko elite kreolek gidatutako eraikuntza nazionaleko prozesua jasan zuten. Hala ere, Kuba zein Puerto Ricon era berantiarrean eman zen hau, eta bi kolonia hauek ez zuten metropoliarekiko independentziarik lortu 1898. urtera arte.

Independentzia Prozesuek eta Europa mailan ematen ari ziren iraultza burgesek areagotutako desoreka politikoaren ondorioz, Espainiaren garapen sozio-ekonomikoa gainbeheran sartu zen. Egoerari aurre egiteko, metropoliak esplotazio mekanismoak areagotu zituen Kubako kolonian. Horien artean gehiegizko zergak, zapalkuntza politikoa, adierazpen askatasunaren urraketa eta osasun zein hezkuntza sistemen gabezia aipa ditzakegu.



Testuinguru honetan, 1868an, Guerra Grande izenaz ezaguna den iraultza saiakera eman zen Kuban, 10 urteren buruan Zanjóneko Itunarekin amaiera ikusi zuena. Alabaina, itunak ez zituen gerrak ezarritako helburu nagusiak betetzen, hots, Kubako independentzia eta esklabotzaren abolizioa. Hortaz, kubatar iraultzaileen zati batek Guerra Chiquitari ekin zion, 1879. eta 1880. urteen artean eman zena.

Iraultza saiakerek porrot egin zuten arren, kubatar iraultzaileen interesak batuko zituen Partido Revolucionario Cubano (PRC) sortu zuen José Martík 1892an. Alderdiak botere politikoa eta gizartearen babesa eskuratu zituen, eta 1895ean espainiar metropoliaren itsasoz gaindiko azkenetariko probintzien independentzia ekarriko zuen azken iraultza saiakerari hasiera eman zitzaion, Baireko Oihuarekin. Guerra Necesaria moduan ezaguna den guda honen azken fasean, Amerikako Estatu Batuek uhartearekiko zuten interes ekonomiko inperialistek bultzatuta Guda Hispano-Amerikarra eman zen, 1898an independentzia prozesuari amaiera eman ziona.

Haatik, Kubak -Puerto Rico, Filipinak eta Guamekin batera- Espainiarekiko autonomia eskuratu bazuen ere, Estatu Batuen tutelapean geratu zen, honek militarki okupatu zuelarik. 1898. eta 1902. urteen bitartean, Estatu Batuek Kubaren gaineko lehen gobernu militar probisionala ezarri zuten, potentzia estatubatuarraren interes ekonomiko eta politiko inperialistak kolokan jar zitzakeen edozein elementu mugatzeko eta deuseztatzeko xedearekin. Era berean, 1901eko Konstituzioari Platt Emendakina txertatu zitzaion, alde batetik, interbentzio politikoa eta militarra ahalbidetzen zuena, eta bestetik, toki estrategikoen arrendamendu eta merkatuaren esklusibitatea bermatzen zuena.



Geroztik, matxinada, interbentzio militarrez eta korrupzioz beteriko gobernu agintaldi ahulen segida eman zen hamarkadetan zehar, tokiko oligarkiaren zein elite inperialisten babesa izan zutenak. Langile klasearen, ikasle mugimenduen zein beltzen eskubideen alde egindako adierazpenak bortizki jazarri zituzten agintaldi hauetan zehar. Egoera hau areagotu egin zen Gerardo Machadoren 1930eko hamarkadako gobernualdian zehar, autoritarismoranzko joera nagusitzen hasi zelarik.

Kubatar gizartea diktadura honen aurka lerratu eta protesta ziklo bati eman zion hasiera, greba orokor batek Machadoren botere uztea eragin zuen arte. Hutsunea matxinadengatik ordezkatua izan zen, harik eta tokiko oligarkiak boterea eskuratu arte. Periodo honetan zehar, Estatu Batuen injerentzia inperialista berpiztu zen, eta Fulgencio Batista koronelaren papera geroz eta garrantzi handiagoa eskuratuz joan zen.

Krisi ekonomikoak jotako testuinguruan, Batistaren koalizio populista nagusitu zen hauteskundeetan: Coalición Democrática Socialista. Batistaren gidaritzapean batutako koalizioa izan zen, besteak beste, Partido Liberal eta Unión Revolucionaria Comunista alderdiak barnebiltzen zituena. 1939ko Convención Constituyenteko hauteskundeetan parte hartzeko sortua izan zen. Koalizioak langileriaren espektro zabal baten zein oligarkiako elementu nagusienen babesa jaso zuen. Hala ere, Bigarren Mundu Gerrak sortutako merkantzien blokeoaren eraginez, hurrengo hauteskundeetan Batistak Ramón Grau sozialdemokrataren aurka porrot egin zuen, eta Estatu Batuetara erbesteratu zen.

> "XIX. mende hasierarako, Independentzia Prozesuen loraldia eman zen Latinoamerikako hainbat naziotan."

Aurreko agintaldietan, Partido Revolucionario Cubano (Auténtico) egon zen boterean. 1898. eta 1902. urteen artean emandako estatubatuarren lehen okupazioan zehar erresistentzia kubatarra deuseztatzeko xedez askapen gudarosteak armagabetzeko eta PRC alderdia desagerrarazi osteko fakzioa izan zen. Injerentzia estatubatuarraren kontrako eta iraultzaren aldeko jardunean irmoki mantendu zen hasiera batean. PRC(A)ko buru zen Grauk erreforma progresista ugari eraman zituen aurrera, edonolako proposamen sozialista iraultzaileak ukatuz. Orobat, bere burkide izan zen Prío Socarrásen agintaldian alderdiarende norabide ideologikoa agerian geratu zen eta AEBrekiko harremanak estutu ziren. Honen aurrean, kubatar langileriak instituzioez haratagoko alternatiba iraultzaileen aldeko apustua halabeharrezkotzat jo zuen.

Aitzitik, 1952an Fulgencio Batista erbestetik itzuli eta Estatu Batuek zein armadak lagundutako estatu kolpea eman zuen. Erregimena berme-emaile eta anitz moduan aurkeztu bazen ere, neurri errepresiboak hartu zituen garai batean bere alde izan zituen komunisten aurka. Paradigma berri honen aurrean, kubatar langileria unibertsitario, komunista eta beste zenbait sektore iraultzaileren arteko oposizioa antolatzen hasi zen.

1953an, PCR(A)ren oposizioa zen Alderdi Ortodoxoak Moncadako kuartelaren aurkako matxinada antolatu zuen, Fidel Castro buru zelarik. Hala ere, matxinada honek porrot egin zuen eta gidarien kontrako errepresioa eta horiek espetxeratzea ekarri zuen. Amnistia jaso ostean, Castro ortodoxoekiko aldendu eta M-26-7 mugimendu iraultzailea sortu zuen 1956an, joera ezkertiar antiinperialista zuena. Directorio Revolucionario 13 de marzo eta Partido Socialista Popular (PSP) alderdi komunistarekin batera prozesu iraultzailearen gidaritza osatu zuen. Taktika gerrilariak areagotzearekin, iraultza prozesuari lagundu zioten lorpenak eskuratuz joan ziren. Azkenik, 1959ko urtarrilaren 1ean kubatar iraultzak garaipena lortu zuen.



Hori guztia kontuan izanda eta prozesu iraultzailearen garapen historikoa aintzat hartuta, ondorengoa izan zen iraultza sozialista garatzeko bidean marxismoaren irakaspenek izandako eragina.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago Kubako prozesu iraultzailea prozesu sozialistatik bereizita egon zela, hau da, ez zuela izaera sozialistarik erakutsi hasieratik.

Carleton Beals, Waldo Frank edota Herbelt L. Matthews autoreen iritziz, iraultzak esentzia humanista, agrarioa, antiinperialista eta nazionalista izan zuen. Bide beretik, Jean Paul Sartrek bat egiten du ideia honekin, kubatar prozesua ideologia zehatzik gabeko iraultzatzat hartuz. Bestalde, Wright Mills soziologoaren tesia partekatzen zuten Paul Sweezy, Leo Huberman edota Paul Baranen ustez, kubatar prozesu iraultzailea marxista izan zen, eredu sobietarra jarraitu ez bazuen ere.



Nolanahi ere, Fidel Castrok berak prozesu iraultzailea prozesu sozialistatik bereizita zegoela onartu zuen. Prozesu iraultzaileak marxismoa teoria politikoan baino egunerokotasuneko praxi politikoan ezagutu zuela baieztatu zuen. Honen erakusle da prozesu iraultzailearen garaipenaz geroztik nazio eraikuntzaren bidean prozesu sozialistak hartu zuen garrantzia.

Lehenengotariko erabaki moduan, lurren, bankuen eta enpresa atzerritarren desjabetzerako eta nazionalizaziorako legeak aurkeztu ziren, eta komertzioaren liberalizazioari ateak itxi zitzaizkion, AEBrekiko inportazioak alde batera utziz. Bestetik, diktaduraren aparatu estatalaren garbiketa eta Estatu burgesaren aparatu burokratikoa desegin zen. Modu berean, alfabetatze kanpaina abiarazi zen, edota Estatuak eskainitako doako zerbitzu publikoak ezarri ziren.

Sozialismoranzko bira honek Eliza Katolikoaren eta burgesia ertain eta txikiaren erreakzioa sorrarazi zuen Directorio Revolucionario zein M-26-7 barnean. Burgesiarekiko aldentze hori ematen zen bitartean, ezker mugimenduen kontsolidazioa gertatu zen. Aderdi Komunistarekin (PSP) batera aipatutako bi mugimendu hauek Organizaciones Revolucionarias Integradas (ORI) siglapean barnebildu ziren. Hurrengo urtean, fronte honek Partido Unido de la Revolución Socialista de Cuba (PURSC) eratu zuen, eta 1965. urterako Alderdi Komunistak Kubako Estatuaren gidaritza papera hartu zuen.

> "Amerikako Estatu Batuetako Independentzia Prozesuak zein Frantziar Iraultzak eragindako Estatu liberalen sorrerak eragin partikularra izan zuen Latinoamerikako kolonietan."

Laburbilduz, esperientzia kubatarrean berezko sozialismoa sortzeko nahia erakusten da, izaera antiinperialista duena eta produkzio bideen nazionalizazio eta jabetza kolektiboan zehazten dena. Irakaspen hauetatik honako baieztapen hauek atera ditzakegu. Alde batetik, marxismoa tokiko baldintzetara egokitzen den teoria iraultzailea dela. Bestetik, praxi politikoa ezinbestekoa dela teoria iraultzaile hau aurrera eramateko bidean. Azkenik, praxi politikoa jardun politiko militante zintzo eta konprometituan oinarrituta eraman behar dela aurrera.

# HAUSNARKETA



# IPAR EUSKAL HERRIKO EGUNGO ETXEBIZITZA PROBLEMATIKA

Ipar Euskal Herrian Covid-19aren pandemiaren ondorengo testuinguruak are larriagoa bilakatu du etxebizitzaren problematika lurraldean bertan. Konfinamenduak, itxialdi perimetralak, maskararen erabilpena momentu oro... eta bestelako neurrien amaierarekin batera, frantziar estatutako biztanle askok aurretik indarrean zegoen kostaldera zein landa eremura bizitzera edo bigarren (hirugarren, laugarren...) etxebizitza edukitzeko dinamika indartu egin dute, bereziki langile aristokrazia eta frantziar burgesiaren artean. Hau da, dirudunak esparru berdeetara joateko tendentzia nagusitu da konfinamenduaren ondoren.

Kontuan hartu beharra dago Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi kontuan hartuta 34.200 bigarren etxebizitza inguru daude, etxebizitza guztien % 20 inguru, alegia, hauen jabeen % 75 inguru kanpoan bizi direlarik. Etxebizitza eskaera igoera honek erantzun zuzena izan du lur eta etxebizitzen jabeen aldetik: haien salmentan prezioa nabari garestitu da. 2015etik hona etxebizitzen salmenta prezioak bataz beste % 20 igo dira. Prezioen igoera honek ondorio ugari ditu.

Lehenik eta behin, lurren eta etxebizitzen merkatua goranzko joeran egonda (eskaera eta prezioak), ongi hauek espekulazio operazioetan erabiltzeko baliatuak izaten dira higiezin agentzien zein burgesen aldetik. Hau da, etxebizitza bat erosten dute baina ez erabiltzeko intentzioarekin, baizik eta hutsik mantentzeko (edo hala nolako alokairuan) eta epe motz-ertainean garestiago saltzeko, maizterrak kontuan hartu gabe. Espekulazioak Ipar Euskal Herrian presentzia bazuen ere (hamarkadak dituen dinamika da, hain zuzen), azken urteetan indartu den dinamika da. Esaterako, Hendaian, 2017. urtean 673 etxebizitza huts zeuden, udalerriko etxebizitza guztien % 5 alegia. Hori gutxi balitz, datu honek ez ditu kontuan 2017an udan soilik alokatzen ziren etxebizitzak.

Lur eta etxebizitza salmentatik haratago, etxebizitzen alokatze turistikoa oso ohikoa bilakatzen ari da azken urteetan, udatik haratago ere alokatuz turistei (jaiegun zubiak, asteburu pasak...). Era horretan, etxebizitzen jabeek denbora gutxiagoan alokatuz diru-sarrera handiagoa lortzen dute. Adibidez, jabe askok haien bigarren, hirugarren... etxebizitza 9 edo 10 hilabetez alokatzeko aukera ematen dute, baina udako hilabeteetan kontratua amaitu egiten da, prezio altuagoan turistei alokatzeko helburuarekin. Fenomeno hau Ipar Euskal Herriaren turistifikazioaren atal bat besterik ez da, hain zuzen ere, etxebizitza problematikarekin harremana duena.

> "bertako gazteen migratzeko beharrak gora egiten du, haien jaioterrian zein Euskal Herrian bizi eta lan egiteko aukerarik gabe aurkitzen dira eta."

Etxebizitza eskaera exogenoaren igoerak eta turistifikazioak eragin zuzena du emantzipatzeko sasoian dagoen Ipar Euskal Herriko gazteriarentzat. Alde batetik, etxebizitzen bataz besteko prezioekiko, langileen soldatak proportzioan jaitsi egin dira (langileen lan baldintzen okertze orokor baten baitan), etxebizitzak erosteko gaitasuna murriztuz. Horri turistifikazioaren ondoriozko salmenta prezioen gorakada gehitu behar zaio. Beste aldetik, alokairuak ere igo egin dira, 60 m2-ko etxebizitza baten hilabeteko alokairua bataz beste 720€ inguruan kokatzen baita Ipar Euskal Herrian. Horren ondorioz, bakarrik bizi den pertsona batek bere soldataren erdia baino gehiago alokairura bideratu behar du. Gainera, kostaldean bereziki ohikoa den udako alokairu turistikoa kontuan hartuta (udaran alokairu kontratua amaitzea alegia), zaila bilakatzen da gazte eta ez hain gazteentzat bizileku egonkorra eskuratzea, sarritan gurasoekin bizitzen jarraitu behar izanez.

Bigarren eskuko etxebizitza bat erosketan edo alokairuan lortzea jada zaila bada Ipar Euskal Herriko gazteentzat, azken urteetan eraikitzen diren etxebizitza berrien gehiengoa ere ez dago Euskal Herriko pertsonei zuzendua: turistei edo frantziar estatuko dirudun zein erretiratuei bideratuak daude, luxuzko proiektu urbanistikoak gero eta ohikoagoak bilakatzen ari direlarik. Eraikitzen diren etxebizitzen % 80 kanpoan bizi direnek erosten dute.

## ONDORIOAK

Azaldutako panorama urbanistiko, ekonomiko eta sozial honek herri eta hirietan duen lehenengo ondorioetako bat gentrifikazioa da. Hau da, maila ekonomiko altuko pertsonak herri zein hirietako auzo txiroetan kokatzea, komertzialki debaluatuak daudenak, baina herriko edo hiriko zentrotik hurbil dauden auzoak direnak (edo bestelako abantailak dituztenak: lantoki nagusietatik hurbil, ...). Horren eraginez, auzoa pixkanaka errenta altuko pertsonen beharrizanetara bideratzen da, komertzioak, jatetxeak, dendak, etab. moldatuz. Fenomeno hau kostaldean dugu presente.




Beste ondorio nagusi bat laborantzarako lurren galera jarraitua da. Lurren jabeek, higiezin agentziekin kolaborazioan, salmenta prezio handiagoa lor dezakete, lurrak laborantzara bideratu ordez bezero VIP batek bere luxuzko etxebizitza eraiki eta lorategi edo zelai erraldoia edukitzeko saltzen badute. Azken urteetan biderkatu egin dira halako operazioak, zeinetan barnealdeko herrietako lur ugari bigarren erresidentzietarako bideratuak izan diren, bailarako laborarien kalterako.

Aurreko atalean aipatutako etxebizitza eskuratzeko zailtasunak areagotzen doazen heinean, alde batetik, bertako gazteen migratzeko beharrak gora egiten du, haien jaioterrian zein Euskal Herrian bizi eta lan egiteko aukerarik gabe aurkitzen dira eta. Beste aldetik, haien erretiroa Euskal Herrian igarotzera datozen frantziar gehiago datoz, Euskal Herriaren nazio izaera are gehiago kolpatuz. Hortaz, ezin daiteke uka etxebizitza problematikaren ondorio garrantzitsu bat Euskal Herriaren asimilazioan sakontzea dela, euskararen eta euskal nazio sentipenaren presentzia beheranzko joeran kokatzen bitartean.

Euskararen aferan, Frantziatik datorren erosleari hizkuntza frantsesa eskaintzen zaio Euskal Herriko saltzaile eta higiezin agentzietatik, bertako komertzioak ere frantsesei bideratuz gero eta gehiago. Horrela, bai bigarren etxebizitza batera uda igarotzera, bai erretiroa pasatzera datozenek ez dute euskara ikasteko ez nahirik, ez beharrik.

Azken aspektu honi turistifikazioaren eskutik datorren kulturaren folklorizazioa gehitu behar zaio. Honek, euskal kultura interes komertzialen menpeko ongi bezala saltzea suposatzen du: ikurrina, euskal gastronomia, euskara, ohiturak... turistei bideratuta saltzen dira, postal edo oroigarri gisako esperientzia bilakatuta. Era horretan, ezinezkoa da arazoa etxebizitzaren esparrura mugatzea. Izan ere, etxebizitzak eta lurra salduz, hizkuntza, bizimodua eta nortasuna ere saltzen dira.

Egoera honen erantzule nagusia frantziar estatua eta bere egitura instituzional guztiak dira, kapitalismoa eta chauvinismoa inposatzen duten heinean. Ipar Euskal Herriko ekonomia frantziar turismora bideratu dute, industria eta nekazaritza alde batera utziz eta, ondorioz, Euskal Herri Langilearen esplotazioa eta nazio zapalkuntza areagotuz. Horrez gain, erantzuleen artean kokatu behar dira higiezin agentziak eta promotoreak, tokian tokiko jauntxoak ere etsai gisa identifikatuz. Hauek etxebizitza salerosketaren bitartez irabazi garrantzitsuak lortzen dituzten elementuak dira, eta irabazi horien maximizazioa helburu espekulazioa sustatzen dutenak.




Egoera honen aurrean mahaigaineratutako alternatibak
Izugarrizko tamaina duen arazo honen aurrean, noski, erantzun ugari antolatu izan dira Euskal Herrian, etxebizitza problematikaren aurkako borrokak hamarkadak dituen borroka esparrua izanik.

Gaur egun, aipatzekoak dira, alde batetik, lur eta eraikinen okupazioak, zeinak erresistentzia ekintza gisa lur zein etxebizitza salmenta operazioak eteteko gai izan diren, erosketa momentuan kanpotar erosleak beldurtuz, hain zuzen. Egitasmo horien atzean antolakuntza maila altua dago, guztiz beharrezkoa dena borrokak denbora zehar mantentzeko eta espekulatzaile zein jabe handiei pultsua irabazteko.

Okupazioak jabetza pribatuari eragiten dion momentuan, erantzun errepresiboa jasotzeko aukera ahalbidetzen du estatu kapitalisten aldetik, sistema kapitalistaren muina ukituta jabeei kalteak sorraraziz. Alternatiba gisa, okupazioa etxebizitza hutsak irekitzeko bidea ere bilakatu daiteke, etxebizitza eskuratu ezin dutenek bizilekua lortzea ahalbidetuz.

Okupazioetatik haratago, higiezin agentziak zein espekulatzaileak seinalatzeko eta etxebizitza problematika mahai gainean jartzeko hamaika eragile eta egitasmo antolatuak daude Ipar Euskal Herrian zehar, arazo sakon bati aurre egiteko oinarrizkoa den propaganda eta kontzientziazio lana burutzera bideratuak direnak. Haien baliabideen artean erosleen estigmatizazioa, okupazioak, tindaketak eta bestelako ekintzak kokatzen dira, erosleak eta saltzaileek atzera egiteko helburua dutenak, adibidez, 2022an Arbonan gertatu bezala.

Hala ere, beharrezkoak eta erabilgarriak diren unean uneko alternatibez haratago, kontziente izan behar gara kapitalismoaren pean bizi garen bitartean, jabetza pribatuaren erregimenak lurrak eta etxebizitzak bahituta mantenduko dituela, burgesen eta hauen jabeen alde kokatuz.

Menura bueltatu

# ELKARRIZKETA




**U14** kolektiboko kideekin mintzatu gara. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko egoeraren lehen eskuko informazioa jasotzeko eta, bestetik, Ipar Euskal Herriko testuinguruan kolektiboak antzematen dituen problematiken eta erronken inguruko euren balorazioa jasotzeko.

*Nola sortu zen U14 kolektiboa? Zer helbururekin?*

U14 kolektiboa 2021 hasieran sortu zen eta uztailaren 14an manifestaldia antolatzea izan zen lehen ekimena. Hala ere, esan behar da U14 sortu baino lehen ere egiten zirela horrelako ekitaldiak, baina azken urteetan alde batera utzi ziren. Helburu nagusia, festa egun inposatuen salaketaren bitartez euskal gazteria mobilizatzea eta antolatzea zen, gure ustez asimilazioan sakontzeko tresna diren frantziar instituzioetatik kanpo.

*Nolako balorazioa egiten duzue egungo Ipar Euskal Herriko egoeraz?*

Euskal Herri osoan dagoen egoera bera dagoela esango genuke eta frantziar eta espainiar festa inposatuak dira honen erakusle. Frantziar eta espainiar estatuek ez dute problemarik haien boterea gauzatu eta erakusteko momentuan. Borroka ziklo bat amaitu da, eta Euskal Herrian desmobilizazioa eta inpotentzia dira nagusi. Hala ere, gure ustez borroka ziklo berri bat hasteko eta mugimendu iraultzaile bat osatzeko baldintzak sortzen ari dira berriz poliki-poliki, bereziki gazteriaren baitan.

*Zeintzuk direla deritzozue egun Ipar Euskal Herrian jorratu beharreko problematika nagusienak?*

Gaur egun etxebizitzaren arazoa da seguraski oihartzun handiena duen problematika. Hala ere, ez da jasaten dugu arazo bakarra, euskararen eta, erz, euskaldunon kontrako erasoek ez dute etenik. Frantziar estatua erreforma ekonomiko eta politikoak egiten ari da gizartearen pobretzeari erantzuteko... Gure ustez, problematika hauek guztiak landu behar dira, baina helburua borroka hauek elkarlotu eta egoera errotik aldatuko duen mugimendu iraultzailea osatzea da. Hortaz, nahiz eta gure kolektiboa egun zehatzen inguruan aritu, kolektiboko kideek beste hamaika borroketan parte hartzen dute.




*Zer paper jokatzen du eta zer erantzukizun du frantziar estatuak problematika horiei dagokienez?*

Frantziar estatua da zapalkuntza ororen bermea Ipar Euskal Herrian. Hortaz, borrokatzen dugun zapalkuntza oror gainditzeko lehen pausoa estatu honen egiturak suntsitzea da. Gure iritziz, frantziar estatua, eta estatuak oro har, ez dira mediatzaileak edo neutroak eta, beraz, ez dugu inolaz ere askapena estatu hauen egituretan parte hartuz eta integratuz lortuko, nahiz eta egitura hauek ''euskal elkargo'' edo departamenduaren izena hartu. Ikusmolde hau gure praktikan islatzen saiatzen gara, borroka beti instituzio hauetatik kanpo garatuz eta ordezkariei zilegitasuna kenduz. U14k ez ditu hautetsiak edo estatuak interpelatzen, herria baizik.

*Frantziar estatuko testuinguru soziologikoan zer paper betetzen du Ipar Euskal Herriak? Zer eragin du turismoak eguneroko bizitzan?*

Frantziar eskalan nahiko eremu txikia da Ipar Euskal Herria eta gaur egun ez da frantziar agenda politikoan lehentasun bat, oro har. Hala ere, frantziar sistema politikoaren eta ekonomikoaren baitan, gure lurraldea opor ederrak pasatzea ahalbidetzen duen lurralde exotikoa da. Horrela, ohikoak dira Euskal Herria Frantzian zehar saltzen duten iragarkiak, gure lurra turismora eta bigarren etxebizitzen merkatura eramanez.



Ipar Euskal Herriko ia ekonomia osoa turismora bideratzeak ondorio ezberdinak dakartza. Alde batetik, bertan sortzen diren lanpostuen prekarietatea aipa genezake, baita ikasketak edo lan kalifikatuak egiteko herritik joateko beharra ere. Gainera, bigarren etxebizitzen eta hona datozen aberatsen ondorioz etxeen prezioa ere oso altua da. Ondorioz, euskal gazte langileek zailtasun handiak dituzte bertan bizitzen segitzeko, eta herrietan gero eta gazte gutxiago aurkitzen dira. Bestalde, ekonomia frantziar aberatsen turismora bideratzeak euskararen eta euskal kulturaren folklorizazioa eta merkantilizazioa ekarri du. Izan ere, euskara eta euskal izatea saltzeko produktu bilakarazi dituzte, hauek eduki politikoz hustuz. Horrela, euskal izena duten eta lauburuak edo ikurrinak saltzen dituzten denda anitz aurki daitezke, baina ez dugu bertan euskaraz dakien inor atzemanen, adibidez. Azkenik, aktibitate ekonomiko gehiena udan zentratzen da. Herri askotan biztanleria bikoizten da udan, urtean zehar bizitza soziala asko gutxitzen delarik.




*U14 kolektiboa Uztailaren 14ra mugatzen da?*

U14 kolektiboaren ekimen nagusia Uztailaren 14ko manifestazioa bada ere, frantziar festa inposatuak borrokatzeko sortu zen kolektibo bat izanik Azaroaren 11ren inguruan ere egiten dugu lanketa, era xumeagoan.

*Zein ekimen eta dinamika planteatu dituzue orain arte eta zer helbururekin?*

Esan bezala, urteko ekimen nagusia Uztaialren 14ko manifestazioa da, baina hitzaldiak edo agitazio kanpainak ere egin izan ditugu, bereziki Azaroaren 11ren inguruan. Ekimen hauen bidez, frantziar estatuaren propagandari aurre egin nahi izan diogu, historialarien bidez gure historia aztertu eta ezagutaraziz edota polemika sortu izan duten ekintzen bidez eztabaida publikoa piztuz. Ekimen hauen helburuak formakuntza bat garatzea eta gaur egun bake sozialaren bidez ezkutatua den talka politikoa agerraraztea dira, batez ere.

*Pasa den urteko manifestazioaren harira, atxiloketak burutu zituen frantziar estatuak. Zelakoa da pairatzen duzuen errepresioa?*

Bai, Donibane Lohitzuneko auzapezarekin izandako tentsio momentuen ondorioz lau gazte atxilotu zituzten polizia operazio batean. Hala ere, ikerketak ez zuen segidarik izan. Geroztik, jarraipenak pairatu ditugu eta presio mediatiko nahiko handi bat, batez ere, Sud Ouest egunkariarengandik. Azken gertakaria Azaroaren 11ren ondoren izan zen. Data honetan Lehen Mundu Gerrako garaipena ospatzen da Frantzian, aberri (frantsesa)-ri egin zioten ekarpena goraipatuz. Guk, euskal gazteak, frantziar aberriarekin inongo loturarik izan gabe heriotzera eramanak izan zirela eta gerra hau gure herriaren asimilaziorako tresna eraginkorra izan zela salatu genuen, mundu gerra bera burgesia ezberdinen interes eta beharren ondorioz gertatu zela oroitaraztearekin batera.




Ekimen honek oihartzun mediatiko handia izan zuen ,eta eztabaida handia piztu. Segidan, Hendaiako auzapezak salaketa jarri zuen eta Urruñakoak hala egingo zuela adierazi zuen, nahiz eta gero atzera egin. Hala ere, oraingoz ez da ondorio errepresiborik izan ekimen honen inguruan.

*Zein da langile mugimenduaren egoera Ipar Euskal Herrian?*

Ipar Euskal Herrian ez da industrializazio handirik izan eta, hortaz, langile borroka nahiko mugatua izan da historikoki, nahiz eta greba mugimendu batzuk oraindik oroitzen diren. Momentu honetan, Frantziar gobernuak aplikatu nahi duen erretiroaren erreformaren kontra ari da antolatzen mugimendua. Izan ere, erretiroa 64 urtera atzeratu nahi dute, eta sindikatu guztiek gaitzetsi dute lege proposamena. Honen harira, urtarrilaren 19an eta 31n greba egunak deitu dira. Lehen greba egunean, 10.000 pertsona inguru bildu ziren Baionan euripean, kopuru hau izanik manifestaldi sindikaletan biltzen den maximoa. Oraingoz, itxura du mugimendua indartu eta luzatuko dela. Hala ere, ikusteko dago ea sindikatu guztiek segitzen duten borrokan edo batzuk azkar akordio batera iristen diren, langileen artean zatiketa sortuz, eta mugimendua zabaldu eta kritika eta konfrontazio orokorrago batera iristeko ahalmena duen.

Menura bueltatu